

Juan Ajuriagerra Hondarribian

Hondarribia, 29. zk., 1989-03: 3.

Juan Ajuriagerra noizean behin etortzen zen Hondarribira.

Herritik pasatu zen klandestinitateko hondarren ibi debekatuen gainetik jauzi bat egitera, eta bertaldean errefuxiatua egon zenean honuntz etortzeko beste hainbestetan ere. Eginbeharrak edo batzarrak non, Ajuriagerra bertan! Halere ez zen inoiz Aste Santuko patxadan etorri.

Haatik, honeratu zen batean esan zidan:

"Aizu, nire bi arrebeekin Ostegun eta Ostiral Santuko elizkizunak ezagutzera etortzeko topa ote neuke hemen etxebizitarik?"

Eta halaxe, herriko lagun on batzuei esker, Rosario, Marina eta Juanek 1973go Pazko egun bi hauek hemen pasa zituzten. Oraindik franquismoak zutik zirauen, eta beste hiru urtez eutsiko oraindik!, baina Juanen borrokak ere bai. Franco, azkenean!, 1975go azaroan hil zen; handik ia hiru urtera, 1978go abuztuan, joan zitzaigun Juan, baina bitartean izan zuen Bizkaitik diputatu aukeratua izan eta Madrilen Euskalerrriaren eskubideak herriaren izenean borrokatzeko beta.

Bestalde, ez zuen jaio berria zen Euskal Kontseilu orokorra edo Consejo General Vasco haren buru Karlos Garaikoetxea (1979ko ekaina) ikusteko astirik izan.

Hau gerta baino urtebete eskas lehenago hil baitzen.

Juan Ajuriagerrak gizon lehorra zirudien, eta hitz gutxikoa zen egiatan. Injenieritzak utzi zion bere zuzentasun eta zentzu karratu hura, agian; agerian non nahi sumatzen zitzaion jitea. Esate baterako kotxean sartu eta gerrikoa jartzen zuen beti, ez orain, orain hogeitau urte baizik bestalde arauak bete behar ziren beti, ez zuen inoiz kotxea hura zetorren etxeko inguruan uzten; Hondarribiako kasuan, gehienetan, herriko sarreran, Concha edo Alvarez Quintero hotelen inguruan.

Bere idortasunari bagagozkio, ez zen hainbestekoa.

Juanen izaera gai dela izan dut gerra garaiko lekukotasun bat.

Artikulu hau idazten ari naizen une berean, beste gizon ezagun baten biografia ari naiz idazten; Lezo Urreiztieta; gizon ausarta itsasgizon iaioa, honek sartu zituen Bilbora gerra garaian geure burua defendatzeko izan genituen arma-untziak. Ajuriagerra hil zen urte berean, 1978an, baina geroxeago, azaroan, eta hemen Hondarribian bertan, jaso nizkion zintan Lezori bere bizitzako abenturak, eta belaunaldi berekoak. Bilbo ingurukoak eta abertzaleak zirenez gero, galde egin nion, ea Juan Ajuriaguerraz zer zioen.

Eta hara niri esandako hitzak:

"Bilboko egun zailtan haserretu nintzen neu bilkura berezi batetan Eli Gallastegiri egin zizkioten kritikengatik, eta bero-bero nire lagun eta alderdikidea defendatzen ari nintzela, eta ni neu nigar egiteraino jarria!; Juan Ajuria hurbildu zitzaidan, eta esan zidan nirekin patxadan hitzegin nahi zuela. Hurrengo egunean joan nintzaion bere

bulegora, eskatu bezala. Bilboko azken hilabeteko egun estu bat zen, eta goizeko bederatzietan sartu eta hamaika t'erdia arte egon ginen elkarrekin; eta gero, bazkaria tarteko, ordubietatik gaueko ia hamabitan irten nintzen handik.

"Eta esan zidan Juanek, nik Eli Gallastegiz esandakoak asko erakutsi ziola, ez zuela horrelakorik uste izan, eta gero Eli berarekin jarraituko zuela hizketan, Yagi-ko bestaldetik Juan bera, Karlos Solano eta Iñaki Unzeta entzule zituela.

"Ez, egiatan Juanek ez zuen ezagutzen Yagi-ren historia.

"Gizatasun eta sentimendu handiko gizon agertu zitzaidan".

Oso ezberdinak ziren bi gizonak: bata, kartaboiarekin eginda bezalako lerro zuzena zen, eta bestea berriz, zeharka kontrabandoan... egiten zituenak zuzenak zirela uste borobila zuena; biak abertzale porrokatuak, Aberriaren alde lan asko eginak.

Eta biak fededunak, bakoitza bere kabuz.